


www.noaia.com

# Noaia !!



Usurbildik Arantzazura  
oinez, 25 urtez jarraian



Igande honetan  
**Sagardoa alkate**

EUSKAL HERRIKO KOLA

# E.H. KOLA



0,75€



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRIA BASERRIA HERRIA  
**BIZIRIK**

## E.H. KOLA HEMEN SALGAI

Alkartasuna Ekarte Baserritar Kooperatiba  
alkartasuna@usurbil.com • Ugarte Industrialea 12  
943 361 114

# Rafa


iturgindegia



astelehenetik ostiralera:  
10h30-13h30 / 16h30- 19h30  
larunbatetan:  
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

## ERRAZKIN. C.B.



*Igeltseritza orokorra*

Kontseju Zarra, 13-4-D

Telef.: 943 365 125

943 372 679

649 435 470

629 420 565

## Badok Amairu !!

# Xabier Heras: "Azterketa bezperan, ezin izaten dut lorik egin"

Izen abizenak: Xabier Heras.

Adina: 24 urte.

Helbidea: Atxegalde.

Lanbidea: ikaslea.

### 1. Jakirik gogokoena.

Amak egindako ibaiko karramarro-ak tomate saltsan.

### 2. Ohitura txarren bat.

Azterketa bezperan lorik ez egitea.

### 3. Zer gordetzen duzu sakelari?

Ezer ez. Dena poltsan.

### 4. Zertan berpiztuko zinateke?

Izurdean.

### 5. Zeri diozu beldurra?

Injekzioei.

### 6. Miresten duzun pertsona.

Familia eta lagunak.

### 7. Ezin zaitezke bizi...

Familia eta lagunik gabe.

### 8. Egindako erokeria handiena.

Gaztetan, zirauna eta sugandila bizirik ireki eta handik minutu pare batera bazkaltzera joan nintzen.

### 9. Liburu bat.

"Kutsidazu bidea Ixabel".

### 10. Film bat.

"Sleepers".



### 11. Leku bat.

Menorka.

### 12. Herriko lekurik ederrena.

Atxegalde (festak badatoz!).

### 13. Urtaro bat.

Udara.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

JAIETAKO BERTSOPAPER LEHIAKETA \_\_\_\_\_ **5. OR.**

25 URTEZ, ARANTZAZURA OINEZ \_\_\_\_\_ **6. OR.**

HAUTESKUNDE KANPAINA, BETE-BETEAN \_\_\_\_\_ **8. OR.**

LASTER HASIKO DA PLIS, PLAS! ZIKLOA \_\_\_\_\_ **10. OR.**

UDAN KANPALDIA ERRIOXAN \_\_\_\_\_ **11. OR.**

LARUNBATEAN HASIKO DA SOINURBIL \_\_\_\_\_ **12. OR.**


DENBORAPASAK, NOAUA! TXIKIN \_\_\_\_\_ **14. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





LUIS ARANALDE

## Errudun maitatzeagatik

Egunotan asko hitz egin da Leon Laclau apaiaz. Behauren (Nafarroa Beherea) jaioa da. Baionako apezpikuak kargutik kendu du. Asson eta inguruko beste sei herritako erretorea zen duela egun batzuk arte. Herri horiek Pau eta Lourdes tartean daude, Biarnon hain juxtu. Pirinioen mendikatea daukate alboan. Paraje zoragarria.

Duela zazpi urte ezagutu nituen Leon eta bere andere laguna Marga; zuetako batzuek dakizuen bezala, inguru horretan aurkitzen den Nay herriko ikastetxe batean igaro nituen urte batzuk irakasle gisa eta geroztik, urtero nire oporraldiaren parte bat hortxe igarotzen dut, mendiaz gozatuaz eta adiskidetasuna landuz. Erretore etxe horretan geundenean hirurok, sukaldari lanak egiten nituen eta mendira joaten ginenean gidari bihurtzen nintzen askotan.

22 urtez geroztik elkar maite dute nire lagunak. Duela bi urte pasatxoak jarri ziren elkarrekin bizitzen, Margak erizain lana Assondik gertu aurkitu baitzuen. Hori dela eta, Pierre Molères apezpikuak zigortu egin ditu nire lagunak, "bizitza eskandalosoa" zeramatela eta.

Eliztarrek ezin zuten sinetsi: hainbeste maite zuten abadea ez zen gehiago izango beren gidari espirituala. Nire lankide ohia Janine Malagannek honela dio Baionako "arduradun erlijiosoei" idatzitako eskutitz batean: "Faro baten argi distiratsua itzali duzue, gau beltzean murgildu gaituzue... Umezurtz sentitzen gara. Egia eta hipokresiaren arteko borroka horretan atzerakada handia eman duzue". Eta Herriko Etxeko Idazkariak hau dio: "1.800 biztanle dituen herri txikia da Asson eta orain artean normaltasunez bizi izan duguna hautsi da Apezpikuaren erabakia jakin orduko".

Laclau-k, bere aldetik, onartzen du arau bat hautsi duela. "Ez dut nehor tronpatu nahi, batzuen ezinegona uler dezaket, baina, bihotzaren agindua ez da ezabatzen diziiplina neurrien bidez".

Apirilaren 29an izan zuten lehen meza Apezpikuak bidalitako Erretore berriarekin. Hamar pertsona sartu ziren Elizan. Laurehun

bat eliztar manifestatu ziren kanpoan modu baketsuan mezari boikota eginez. Erretore ohiak jaso duen solidaritatea izugarria izan da: zaharrek eta gazteek, denek adierazi nahi zioten beren elkartasuna. Leonek honela esan zigun maiatzaren 6an: "gehiago malkorik ez dut. Ez zenukete sinetsiko zenbat negar egin dudan emozioz. Orain konturatu naiz zenbat maite ninduten". Horrenbeste estimatzen bazuten beren abadea, non dago eskandalua? Eskandalutzat jo dute Gotzainaren jarrera, erabakia hartzeko era. Zergatik ez zen hurbildu herri horietara eta galdetu bertako eliztarrei zer pentsatzen zuten beren Erretoreak bizi zuen egoeraz? Baina, Baionako apezpikuak ez du elkarrizketarik nahi. Benetan, eliza hierarkikoaren estiloak ez du zerikusirik askotan ebanjelioarekin.

Afera honetan, azken batean, zelibatoaren esanahia, balio eta egokitzapena dago jokoan. Duela hiruzpalau hilabete elkarrizketa bat izan genuen Euskadi Irratian Antton Aranburuk zuzenduta. Mirentxu Kanpos, Kontxi Loidi, Unai Manterola Orioko erretorea eta neuk parte hartu genuen. Laurok bat gentozen puntu nagusi batean: zelibatoak aukerakoa izan behar lukeela, alegia. Gaurko gazte batek, apaiz izan nahi badu, hautatzeko gaitasuna behar du abade ezkondua edo ezkongabea izateko. Nire ustez, gainera, neskek aukera bera izan behar lukete. Ebanjelioan ez dago ezer iritzi honen aurka. Jesusen jarraitzaileetako batzuk ezkonduak ziren eta besteak zelibeatik, emakumezko, nahiz gizonezko. Mila urte ditu apaizen zelibatoari buruzkoa Eliza arau honek. Gai hau serio planteatzeko garaia iritsi zaio Elizari. Baina, ez du ezer jakin nahi oraingoz.

Ama deitzen diogu Elizari, baina, amarena baino neskazahar agorraren itxura gehiago ematen du askotan. Beste gogoeta batean esaten nizuena berresten du Baionako gotzainak hartu duen erabakiak: "Elizak ia beti dogmari (legea, araua, printzipio teologikoa...) eman dio lehentasuna eta ez pertsonaren zorientasunari". Hori da, hain zuzen, ebanjelioaren aurkako jokabidea.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

### Ika-mika!

## Erraustegizaleen politika eta trikimailuak

Gipuzkoarrok denbora luzez jasan alde diren alderdien politika. Gai honetan lotsagarri aritu dira, gezurra behin eta berriz esateko lotsarik gabe, eta herriaren borondatea entzun gabe. Hautentzat alferrik dira herritarrek egindako lana, mobilizazioak eta abar. Dena dela, komunikabideak euren esku eduki arren, ez dira gai izan jendea konbentzitzeko. Ez da harritzekoa errauste plantaren alde egiten duten alderdi guztiek -EA, PNV, PSE eta PP-parte-hartzea ulertzeko modu bera izatea. Alderdi horiek bi aste hauetan saiatuko dira hau eta bestea agintzen, eta gaizki egindakoak ezkututzen. Hauteskundeak pasa ondoren, ordea, herritarrarekin ahaztuko dira. Herritarra azaldu ere ez egitea izango da beraien helburua. Horren adibi-

de ugari ditugu; Luis Mari Ormaetxeak plenoak egiteko aukeratutako ordutegiak; Odon Elorzak errauste plantaren kokapena Zubieta zela erabakitzeko, egindako plenoa, gai zerrendan sartu ere egin gabe, PNV eta EAren laguntzarekin.

Gu, berriz, beste eskola batekoak gara. Zubietako Herri-Batzarra izan da gure eskola. Instituzio xumea gurea. Bere garrantzia galarazi nahi izan dute, ez baitute sinisten herriaren parte-hartzean. Hala eta guztiz ere, gure lanerako gogoarekin gainditu dugu hori guztia.

Guk ez dugu ezertxo agintzen. Orain arte bezala, lanera gatoz. Horretarako bai hauteskunde egunean bai ondorenean zuten laguntza behar dugu. Errauste plantaren aurka egiteko, modu alternatiboak ahalik eta herri gehienetan jarri behar ditugu.

Oraingoan beste pauso bat eman dugu. Usurbilen aurkeztu gara EAE-ANVTik. Zaborren kudeaketa eta politika egiteko modua sustraitik aldatzeko asmoz. Horretarako Udala lortu behar dugu; San Markoseko Mankomunitatera iritsi beharra daukagu. Foru Aldundian eta beste herri askotan gure listak zakarretara bota dituzte, nahiz eta gusturago errauste plantara botako lituzketen. Orain aurrera egitea lortu dugun herrietan, ardura handiagoa dugu.

Horregatik zuen bozka eskatzen dugu 27ko hauteskundeetan. EAE-ANVT da aukera. Orain da garaia, gure esku dago; errauste plantaren alde egin duten alderdiei merezi dutena emateko.

Imanol Azpiroz, Juanjo Olaizola

## Martxan da Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketa

**S**antixabeletarako gero eta gutxiago falta da. Baina oraindik bada paper mutur batean bertso batzuk idazteko denbora. Bota Punttubak, behintzat, egina du Bertsopaper Lehiaketarako deialdia. Uztailaren 3an amaituko da partehartzeko aukera.

Hauek dira Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketara aurkeztzen denak bete behar dituen baldintzak.

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, uztailaren 3a baino lehen, helbide honetako buzoian utzi: Usurbilgo Udala (XXXI. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170.
- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.
- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.
- Aurkeztutako lanek behar duten



DANBORRADETARAKO ENTSEGUAK  
DAGOENENKO HASITA DAUDE.

kalitaterik ez badute, sariak eman gabe utz daitezke.

- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.

- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Epaimahaiaren erabakia uztailaren 7an emango da ezagutzera Santixabel jaietako bertso saioan.

### Astlehenean amaituko da diseinu lehiaketan parte hartzeko epea

**J**aietako egitarauak diseinatzailea behar du. Horregatik, udalak lan hori egiteko lehiaketa antolatu du. Partehartu nahi duenak egitarauaren testua jaso behar du udaleko Soziokultura batzordean. Behin egitaraua eskuetan, testu horretan oinarritu beharko du lehiaketara aurkeztu duen diseinu lana.

Formatu artistiko guztiak onartuko dira: pintura, akuarela, collage-a, argazkiak, digitala... Egilearen datu pertsonalak, gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, aurkeztutako lanaren atzealdean agertuko den izengoiti bat idatzi beharko du egileak.

#### Saria, 500 euro

Lehiaketaren irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Lanak Soziokultura batzordean aurkeztu behar dira baina, adi, maiatzaren 21a baino lehen.

### Ika-mika !

## Gutun irekia alderdi guztietako hautagaitzei

**H**auteskunde garaia dugula-eta, zuek, alderdi guztietako hautagaiak, datozen urteetan gure herriaren norabidea zuzenduko duzuen arduradun zuzenak, herri honen kezka nagusienetako baten inguruan zuen jarrera eta asmoak, argi eta garbi publikoki agertzeko beharra daukagu herritarrak. Zaborren kudeaketa %100 eskuduntza munizipala denez, zuek izango baitzarete herri honen etorkizunaren erantzule nagusiak.

Hurrengo galderak zintzoki erantzutea soilik eskatzen dizuegu:

1. Sakonki aztertu eta frogatu duzue ez dela existitzen erraustegi ala zabortezia beste irtenbiderik zaborren parte handienarentzat?
2. Neurriren bat hartzeko asmorik ba al duzue zaborren sortzea jatorrian gutxitzeko (alegia, fabrikante, banatzaile, saltzaile-entzat neurriak)?

3. Justua eta jasagarria iruditzen al zaiuzue zaborren arazoaren koste osoa gizararen eta herritarren bizkar izatea? Zerbait egin behar al duzue hori horrela ez izateko?

4. Frogatu eta garantizatu dezakezue erraustetak usurbildar, zubietar eta beste herritarrei osasun arazorik ez diela sortuko?

5. Zabor organikoa aprobetxatzeko neurri efizienterik bat hartzeko asmorik duzue?

6. Prest al zaudete herriaren aurrean erraustegiaren ere, zaborteziaren (toxiko eta arriskutsuak gainera) beharko direla aitortzeko?

7. Uste duzue erraustegiak birziklatzea lagunduko duela?

8. Gipuzkoako errepideak jasaten duten trafikoa jasanezina izaki, instalazio zentralizatu batek dakartzan garraio beharrak saihesteko neurririk hartu behar al duzue?

9. Zaborren tasa zenbat igoko da, eur otan?

10. Herritarrei gai zehatz honen inguruko iritzia galdetzeko prest al zaudete?

11. Gizartean izandako erreakzioak, protestak, manifestazioak, sinadura bilketak... ikusirik (zalantza kasuan hemeroteika ikus), horren aurrean zein jarrera hartzeko asmoa duzue?

12. San Markoseko mankomunitatea utzi eta zaborren eskuduntza munizipala zuen gain hartzeko prest al zaudete, mankomunitatearen erabakiekin ados ez bazaudete?

Hautagaitza guztiek eta bakoitzak bere jarrera argitzea hauteskundearen aurretik egin beharreko giza legezko ariketa da, ez baitugu onartuko beste behin ere engainatuak izatea. Adeitasunez,

## 25 urtez

## Usurbil eta Arantzazu arteko bidea osatzen

**A**rantzazu Usurbildik begirata urrun gera daiteke, baina bi guneak oinez lotu dituenik bada. Urteetan partaidez aldatzen joan den mendizale talde bat. Baina lagun batzuek hasieratik, duela 25 urtetik, ez dute hutsik egin; tartean, bi usurbildarrek.

Joxe Mari Arrospide eta Migel Arrastoa usurbildarrak, Jexux Zubillaga oreretarra eta Agustin Arretxe asteasuarra zorioneko daude. Mende laurdena igaro da, lehen aldiz, Usurbil eta Arantzazu arteko ibilbidea oinez egin zutenetik. Lagun artean sortutako ideia izan zen. Gerora, Gipuzkoako beste hainbat txokotako bizilagunak gehitu zaizkie. Gogorra baina polita dela diote.

Estreinako irteeran, bero egin zuen, abuztuan egitea erabaki baitzuten. Gerora, ordea, hilabetez aldatu eta urte askotan, Aste Santutan antolatu dute ekimena; Ostegun Santuan. Hala ere, eguraldia protagonista izan dute ibilaldi askotan. "Katiuskekin urez goraino beteta ibili izan gara", adierazi du Zubillagak.

## ARANTZAZURA BIDEA

"Azken urte hauetan Ostegun Santuan egin ohi dute ibilaldi hau; duela bi urte 42 lagun elkartu ziren"

Urte hauetan guztietan parte hartzeak gorabeherak izan ditu. Urteak joan, urteak etorri jende berria gehitzen eta besteek joateari utzi diote; batzuetan mendizale gehiago, besteetan gutxiago. Baina ekimenak bizirik jarraitzen du. "Duela bi urte 42 lagun ginen", gogoratzen du Arrospidek.



EZKER-ESKUI, ARANTZAZURAKO BIDEA 25 URTEZ EGIN DUTEN LAU MENDIZALEAK: ARROSPIDE, ARRASTOA, ZUBILLAGA ETA ARRETXE.

## Ibili ondoren, bazkaritara

Maiatzaren 5ean Andazpe elkartearen bazkari eder baten bueltan ospatu zuten efemeridea.

Aurtengoa berezia den arren, urteroko hitzordua izan ohi dute. Aste Santutan ibilaldia egin, eta handik aste gutxira mendizaleen bizilekuko elkarteren batean bazkaria antolatzen dute. Urtero, leku ezberdinetan;

Antiguan, Zarautzen.. Aurtengoa, Usurbilgo elkartearen prestatu dute.

Hain zuzen, 1982an hasitako bidea-ri, gerora, lagun gehiagok jarraitu diete. Batzuek bere bidea leku ezberdinetan hasita, Usurbil, Billabona, Orereta, Oñati, Ordizia edota Arrasateko hainbat mendizaleren topagune bihurtu da.

Sasoian dauden belaunaldi berri



dei egiten diete. "Ia gazteak animatzen diren", zioten. Hori bai, aldez aurretik entrenatuta. Bestela, urte luze hauetan Arantzazura oinez joan direnei galdetu besterik ez dago. "Aldez aurretik, ibili egin behar", aipatzen dute. Larunbat eta igande goizero, aukera dutenean behintzat, mendi bueltaren bat egiten dute beti.

Egunean bertan, hanketako babak edota muskuluetakoa lesioak saihesteko kontuz ibili beharra dagoela diote.

Oinetako eta ibilera erritmo egokiak behar dira. Ohiko gomendioak izanik, horrelako ibilaldi luzeetarako are garrantzitsuagoak direnak.

25 alditan osatu dute Arantzurako bidea. Zenbat gehiago egin ditzaketen galdetuta, kopurua 30era igotzea nahiko lukete. "Beste bost bat gutxienez", aipatzen zuten. Zorionak denoi!


ARITZ GORRITI



LAGUN ARTEAN SORTUTAKO IDEIA IZAN ZEN. GERDRA, GIPUZKOAKO BESTE HAINBAT TXOKOTAKO BIZILAGUNAK GEHITU ZAIZKIE.

## 60 kilometro pasatxoko ibilaldia

Mendizaleak sasoi bikaine-  
Man direla erakusteko Gipuzkoako mapa hartu besterik ez dago. Usurbildik abiatuta, Arantzazura 60 kilometro pasatxo egon daitezke. Abiapuntutik Arantzazura oinez egin duten distantzia hori, hamabi edota hamalau bat ordutan osatu izan dute. Hori bai, autoa hartuta errepidez egin beharrean, mendiko botak jantzita eta oinez. Mendiz mendi, honakoak dira, mapa eskuetan, zeharkatzen dituzten puntuetako batzuk: Andatza, Ziortza, Andatzarrate, Zelatun, Bidania, Murumendi, Mandubia eta Kizkitza baselizatik behera Zumarragara. Handik errepidez Legazpira, gero Udana gainera eta Brinkolan gora Arantzazura. Bide luzea baina merezitako geldialdiekin egina, dagoeneko geltoki ofizialak badituzte. Eta mende laurden honetan ezagunak bihurtu dira.

  
ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

JOSUE  
ARANZAZISTROKI  
**IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA**  
Juan Jose enca. 6 Kalegar  
Tlf: 606 57 21 05

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
20170  
USURBIL

Zuen publizitatea hemen  
☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

## Hauteskunde kanpaina, bete-bete

**U**dal hauteskudeetako kanpainak lehen astea bete du. Nahikoa lasai joan dira lehen egunak. Hasi dira alderdien kartelak ugaritzen. Baina hortik aurrera, ezer gutxi. Dena den, botoa eskatzeko beste astebete izango dute.

EAE-ANVkoak izan dira lehen ekitaldia eskaini dutenak. Lehengo astean, frontoian aurkeztu zuten herri programa eta hautes-zerrenda. Auzoz auzoko aurkezpenak ere egin dituzte azken egunotan. Larunbat honetan Zubietan izango dira, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Larunbat honetan ere, baina arratsaldeko 19:30ean, Usurbilgo EAE-ANVren aldeko argazki herrikoia egingo da dema plazan.

Horretaz gain, blog bat zabaldu dute kanpainaren berri emateko nahiz hautagaiekin harremanetan jartzeko:

<http://usurbil-anv.blogspot.com>

### Buruntzaldeko EAJ-PNVko hautagaien proposamena

Garapen sozioekonomikoa sustatzeko bulegorik ez duen eskualde bakarra da Buruntzaldekoa. Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen pare jarri asmoz, bulego hori martxan jartzeko konpromisoa hartu du EAJ-PNVk. Proposamen hau elkarrekin egin dute Buruntzaldeko EAJ-PNVko hautagaiek. Tartean, Iñaki Illarramendik, Usurbilgo hautagaia.

### Larunbatean, Aralarren ekitaldia Udarregin

Aralar alderdiak larunbat honetan egingo du udal hauteskudeetarako hautagaien eta programaren aurkezpena. Udarregi ikastolan egingo dute aurkezpen-ekitaldia, eguerdiko 12:00etatik aurrera.



PASA DEN LARUNBATEAN, EAE-ANV ALDERDIAK USURBILGO ZERRENDAREN AURKEZPEN- EKITALDIA EGIN ZUEN FRONTOIAN.



EAJ-PNVK BURUNTZALDEKO HERRIETAN AURKEZTU DITUEN HAUTAGAIAK. ESKUBITARA DAGOENA DA IÑAKI ILLARRAMENDI.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GRSA  
RENKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aristiño 8. behea - 943 383 348 - 609 888 021

**ALDAMU**



**KONPONKETAK**

KALE NAZUSA 10 - Asteasu  
945 572 795

Kale Nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Orindegia - Gozategia

**LABE-GOXO**



## San Ixidro egunean giro ederra baina jende askorik ez

**A**steartea egokitu da aurten, maiatzaren 15a, San Ixidro eguna, eta hori ospakizunetan nabaritu da. Eguraldi ona izan arren, ez zen jende asko izan antolatu ziren ekitaldietan. Baina zeudenak gustura egon ziren.

Meza eta horren ondoren, Andazpe elkartean antolatzaileek prestatu zuten hamaiketakora ez zuten hutsik egin. Gero, horietako batzuk kalean gora egin eta frontoian geratu ziren "bertso-pilota" ekitaldian. Lau pilotari jokoan eta bi bertsolari Dema plazako ohol-tza gainean bertsotan. Kirola eta bertsoa biak batera uztartuta edota tartekatuta. Azkenik, goiza behar bezala amaitzeko bazkari baten bueltan bildu ziren Saizarren.



SAN IXIDRO EGUNEAN OSPAKIZUNIK EZ ZEN FALTA IZAN. HAMAIKETAKOA, BERTSO-  
AK, PILOTA PARTIDA... JENDE ASKO EZ IZAN ARREN, GIRO EDERRA IZAN ZEN.

## Nafartarrek igande honetarako Ausa-Gaztelura mendi martxa antolatu dute

**A**usa-Gaztelura igoera antolatu dute Oria aldeko nafartarrek. Aralar mendilerroan, Txindokitik ez oso urruti kokatua dago. Hitzordua ere aipatutako azken mendi horren magalean jarri dute; Larraitzeko aparkalekuan, igandean, maiatzak 20 goizeko 10:00etan.

Ekimenak Nafarroaren batasuna aldarrikatzea du helburu. Hala egingo du antolatu duen mendi martxak eta ia 1.000 metroko garaieran.

"Nafarroa osoa Ausa-Gaztelun" lemapean, Aralar alderako mendi martxa goizeko 10:00etan hasiko da Txindoki mendiaren magalean; Larraitzen kokatzen den aparkalekuan. Bertara ailegatzen direnek ez dute giro faltarik somatuko.

Trikitilariek alaitutako ongi etorria antolatu baitute. Ordu erdi berandua-go abiatuko dira Ausa-Gaztelu aldera.

### Gailurrean, aldarrikapena

Eguerdian izango da ekitaldi nagusia, 904 metroko garaieran. 12:00etarako partehartzaile guztiak gailurrean bilduko dira eta bertan dagoen gazteluan bandera zutitzearekin batera, komunikatua irakurriko dute. Nafarroako Gorteen ereserkia joko dute, bertsolari, trikitilari, txistulari eta aurrekurik faltako ez den ekitaldian.

### Sagardotegian amaiera

Jaitsiera irteera lekuan amaituko da, Larraitzen, 13:30-14:00 artean. Bazkaltzeko ordua izango denez, otordua egiteko Abaltzisketako Zalbide



IRUDIAREN EZKERRETARA DAGO  
AUSA-GAZTELU. ESKUBITARA, TXINDOKI.

sagardotegian biltzekoak dira, mendi martxan parte hartu eta antolatze lanetan aritu direnek.

# Datorren astean hasiko da Plis, Plas, Txalo eta Jolas!

**M**aiatzaren 26an hasiko da Plis, Plas, Txalo eta Jolas!, urtero udaberri partean NOAUA! Kultur Elkarteak antolatzen duen zikloa. Bost ekitaldi izango dira guztira.

Santueneko kultur elkartean egingo da Plis, Plaseko lehen ekitaldia. Maiatzaren 26an larunbata, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, "Asto bat hipodromoan" ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu.

Aurtengo egitarauan proposamen gehiago aurkituko dituzue: jolas txokoak Zubietan, Kiki eta Koko pailazoak Kalezarren eta "Egizu lo tartalo" antzerki saioa Aginagan.

Pirritx eta Porrotx pailazoek ekainaren 19an eskainiko duten emanaldiarekin amaituko da Plis, Plas! Ondo pasa!



PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOEK "MARI MOTOTS" IKUSKIZUNA  
ESKAINIKO DUTE EKAINAREN 19AN USURBILGO FRONTOIAN.

## "Asto bat hipodromoan" ipuin kontaketa antzeztuarekin hasiko da Plis, Plas zikloa

**I**kuskitzen honen istorioa Bernardo Atxagaren izenburu bereko liburuan oinarritua dago. Bertan, hipodromora lan egitera doan asto baten bizitza kontatzen da. Zaldiak nola bizi diren ikusirik astoak hipodromotik alde egiten lagunduko die bere astronomia ezagutzak baliatuz.

Antzezlan hau martxoan estreinatu zen eta ordutik Iñaki Agirrezabal ipuin kontalariak herri ugari bisitatu ditu bere astoarekin batera.

**Maiatzak 26, larunbata**

17:00etan Santueneko elkartean.  
Ipuin kontalaria: Iñaki Agirrezabal.  
Idatziaren egilea: Bernardo Atxaga.  
Iraupena: 45 minutu inguru.



ZALDIAK HIPODROMOAN NOLA BIZI  
DIREN IKUSIRIK, ASTOAK IHES  
EGITEN LAGUNDUKO DIE.

## Egitarau osoa

**Maiatzak 26, larunbata**  
17:00etan, Santueneko elkartean:  
Gorringo taldearen "Asto bat hipodromoan".

**Ekainak 2, larunbata**  
17:00etan, Zubietako frontoian:  
Kilimiska animazio taldearen  
"Jolas txokoak".

**Ekainak 9, larunbata**  
17:00etan, Kalezarreko plazan:  
Kiko eta koko pailazoak (eguraldi  
txarra egingo balu, Kalezarko ekital-  
dia haur eskolan egingo litzateke).

**Ekainak 16, larunbata**  
17:00etan, Aginagako frontoian:  
Dar dar taldearen "Egizu lo tartalo".

**Ekainak 19, asteartea**  
17:30ean, Kaxkoa, herriko fron-  
toian: Pirritx eta Porrotx.

# Ziortza Gazte Elkarteak udako kanpaldien ohitura berreskuratu du

**P**eñaloscintos aipatuta, herri-  
tar askori gaztetako kanpal-  
dia gogora etorriko zaio.  
Ziortza Gazte Elkarteak ohitura  
berreskuratu eta aurtengo uztaierako  
bertara joateko eskaintza luzatzen du.

Urte batzuetako etenaldiaren oste-  
an, berriro ikusi ahal izango dira kan-  
pinak eta Usurbilgo monitore eta gaz-  
teak Errioxako Cameros mendietan.  
Zehazkiago, Ortigosa herriko  
Peñaloscintos auzoan. Ziortza Gazte  
Elkartekoez uztaierako kanpaldia  
antolatu dute. Ingurune lasaia da  
hura. Herri txiki eta mendiez ingura-  
tua, eta kanpalekutik oso gertu, fres-  
katzeko lakua. Ekintza ugari egiteko  
aukera, helburu bakar batekin; ondo  
pasatzea.

## Astebeteko bi egonaldi

Adin tarte ezberdinei dagozkien bi  
txandatan banatuko da. Uztaieraren  
9tik 15era LH-ko 3., 4., eta 5.maila-  
koek joateko aukera izango lukete.  
LH 6.maila eta DBH 1. eta 2.maila-  
koak, aldiz, uztaieraren 15etik 22ra.



DUELA URTE BATZUK ATERATAKO IRUDIA. USURBILGO GAZTE TALDE BAT MOTXILAK  
BIZKARREAN ZITUZTELA, INGURUKO HERRIETATIK EGINDAKO IBILBIDE BATEAN.

## Larunbatean amaituko da izena emateko epea

**D**agoeneko izena eman daiteke  
Parrokiko bulegoetan 10:00-  
12:00 artean edota 16:30-19:00 arte-  
an, e-mail bat bidalita  
ziortzage@gmail.com helbidera

edota telefonoz 943 362 896 zenba-  
kira deituta. Egonaldia 60 eurokoa  
izango da; etxe bereko bi gazteen  
kasuan, 100 eurokoa. Izena emateko  
azken eguna, maiatzaren 19a.

## Larunbatean, Antzerki Tailerraren saioa

**U**surbilgo Antzerki  
Tailerreko antzezleek pro-  
posatutako gai sozial baten  
inguruko obra taularatuko dute  
maiatzaren 19an, 13:00etan Sutegin.

Aktore gazteen inprobisazioetatik  
abiatuta, gidoiak haien irakasle eta  
aktore den Iraitz Lizarragak idatzi  
ditu. "Metaforikoa den arren, fondo  
sozial handiko lana da", iragartzen du  
Lizarragak. Herritarrei Sutegira berta-  
ratzeko dei egiten diete. Gogor eta ilu-

sio handiz aritu baitira entsegu saioe-  
tan.

Antzerki Tailerra, gurasoen ekime-  
nez sortu zen. Iazko ikasturteetik parte  
hartzen ari diren 11-14 urte arteko  
gaztetxoen artean ezin harrera hobea  
izan du.

Udako oporrekin amaituko dute  
bigarren ekinaldia. Baina udazkenetik  
aurrerakoan ere pentsatzen hasiak dira.  
Parte hartzea handitzearekin batera,  
jaso beharreko laguntza nola bideratu  
erabakitzen ari dira.



LARUNBATEAN ESTREINATUKO DUTE  
ANTZERKI TAILERREKO OBRA BERRIA.



# Musika adierazpide ezberdinen topaleku bihurtuko da Soinurbil

**B**adator Soinurbilen hirugarren edizioa ere. Asteburu honetatik aurrera, musika bere adierazpiderik zabalenean entzun ahal izango da herrian. Hasteko, Landarbaso abesbatza, BTK batukada taldea eta Taun Taun Teatroaren antzezlana.

Zumarte Musika Eskolak 20. urterena ospatzeko aitzakia baliatuta hasi ziren antolatzen musikari lotutako ekitaldi sorta. Hasiera batean, askoz iraupen txikiagoa zuen ekimena antolatu zuten. Lehen edizio hark izan zuen harrera ikusita, bigarren bat antolatzea eta ekimena denboran luzatzea erabaki zuten. “Musika astetik musika ziklora igaro gara eta izena aldatu diogu”, adierazi du Idoia Arruabarrenak.

## IDOIA ARRUABARRENA

“Helburua, musika entzun, musikarekin ikasi eta musikarekin gozatzea da”

Hala, zikloak bere izen propioa du; Soinurbil eta hirugarren edizioa ailegatu da. Arlo eta adin tarte ezberdinegana heltzea nahi izaten dute antolatzaileek eta hirugarren edizioa ez da, zentzu horretan, atzean geratuko. “Helburua, musika entzun, musikarekin ikasi eta musikarekin gozatzea da”, adierazi du Zumarteko kideak.

## Kolore guztietako ekitaldiak

Herritarrek egin ditzaketen proposamenei zabalik, datozen asteetan izango diren ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatzen dute. “Gustuko duen ekitaldira parte hartzera gonbidatzen dugu jendea. Asko daude, kolore guztietakoak. Norberak nahi duena auke-



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK ANTOLATU DUEN ZIKLOAK USURBILGO UDALAREN LAGUNTZA JASO DU.

ratu dezala eta ongi etorriak izango dira”, aipatu du Arruabarrenak.

## Tradizioa eta ekitaldi pedagogikoa

